

Espainiako txapeldun kolpez kolpe

Ixa Rodriguez Espainiako boxeo txapeldun bilakatu zen maiatzaren 30ean Murtzian 'minimosca' mailan. Ermuan jaiotako boxeolari honek orain dela hiru urte jantzi zituen lehendabiziko aldiz boxeo eskularruak eta denbora labur honetan bere helburua lortu du. Orain ikasketei emango die lehentasuna, baina ez du bere pasioa albo batera utziko.

Ermuan jaio bazen ere, herritik kanpo bizi da gaur egun Ixa Rodriguez. "Mallorca, Alacant eta Gasteizen bizi izan naiz, eta orain Soraluzen nago", dio Rodriguezek. Hala ere, Ermuarekin harreman estua mantentzen jarraitzen duela aitortzen du. "Hemen pasatu dut haurtzaro osoa eta Gabonetan beti etortzen naiz". Bada Gabon hauetan Espainiako boxeo txapeldun moduan igaroko ditu festak.

Espainiako Txapelketan ez zuen bide erraza izan Rodriguezek. Lehen borrokan Aragoiko ordezkariaren kontra lehiatu zen. "Lehia gogorrena", bere hitzetan. Borroka nulua izan zen eta epaileek erabaki zuten ermuarrak merezi zuela irabaztea. Gero Kanariar Uharte eta Madrilgo ordezkariak utzi zituen kalendar



finalean Andaluziakoaren aurka lehiatu aurretik. "Oso final gogorra izan zen oso nekatuta nengoelako", baina txapelketa eskuratu zuen.

'Minimosca' mailan 48 kilotik beherakoek borrokatzen dute. Ixa Rodriguezek, normalean, 53 bat kilo pisatzen ditu, beraz, maila horretan borrokatu ahal izateko kiloak galdu behar izan zituen. "Hori abantaila izan zen niretzat, maila horretakoaren artean ni altuena nintzelako eta gorputz gehien nuelako", dio. Izan ere, bere helburua etsaiak baino indar gehiago edukitzea zen.

Sandatik boxeora

Boxeoarekin duen harremana orain dela hiru urte hasi zuen. Rodriguezek Sanda praktikatzan zuen, "Kick Boxingaren antzeko arte martziala", eta Eibarren Sanjuanetan egiten den boxeo jaialdian Josu Lopategi ezagutu eta euren kirol ibilbideak batu zituzten. Hiru urte pasa dira ordutik eta jada Espainiako txapelduna da. "Oso burugogorra naiz eta gauza bat lortzea nahi badut, ez naiz



gelditzen hura lortu arte". Izan ere, Ixak aipatzen duen bezala, "ring gainean eguneroko norbera bizitzan den moduan portatzen da". Pertsona oso urduria dela aitortzen du eta etsaiak ez dakitela zein kolpe emango dien, berak ere ez dakielako.

Rodriguezaren esanetan ez du taktikarik erabiltzen borroketan. Gainera, teknika asko ez duela aitortzen du. Beraz, nola lortu du Espainiako txapeldun izatea? "Etsaiak diote zortzi birika daukadala". Bere esanetan, ring gainean ez da inoiz gelditzen. "Ia ez dut boxeo ikasteko denborarik

izan, urte gutxi daramatzat honetan, baina esan dudaren bezala, burugogorra naiz eta teknika falta hori beste gauza batzuekin konpentsatzen dut".

Orain hiru hilabeteko atsedena hartu du Ixa Rodriguezek. "Gustuko dut boxeolariaren bizitza, baina badakit noiz edo noiz amaitu egingo dela eta zerbait egin behar dut etorkizunera begira", dio. Ikasketei heldu die orain, baina egunero Soraluzen duen klubean entrenatzen jarraitzen du. Etsaiak lasai egon daitezke hilabete batzuetan behintzat!

Ekhi Velar

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08